

Txostena
Informe

**Gastu Fiskalaren Egitura
eta Osaeraren Azterketa**

**Análisis de la Estructura
y Composición del Gasto
Fiscal**

2000



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/INDICE

SARRERA	3
I. AZALPEN ATALAK	5
I.1 Arauketa	5
I.2 Gastu Fiskalaren definizioa	6
I.3 Gastu Fiskalaren egituraren analisia, zergen arabera	10
I.4 Arautegi aldaketak.....	17
II. ONDORIOAK	18
III. GOMENDIOAK	20
INTRODUCCIÓN	21
I. APARTADOS EXPLICATIVOS	23
I.1 Regulación	23
I.2 Definición de Gastu Fiscal.....	24
I.3 Análisis de la estructura de los Gastos Fiscales por impuestos	28
I.4 Cambios normativos	35
II. CONCLUSIONES	36
III. RECOMENDACIONES	38
ALEGACIONES	39

Vitoria-Gasteiz, 2003.ko abenduaren 11a
Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2003



SARRERA

Gastu fiskalaren egitura eta osaeraren azterketari eta Euskal Herriko Administrazio Publiko ezberdinen kontrol prozedurei buruzko txosten hau, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeari jarraiki egiten da eta 2002ko ekaina – 2003ko maiatza bitarteko Urteko Lan Programan jaso dago, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta.

Lanaren mamia honako hau izan da:

- Gastu fiskalaren kontzeptuaren analisia.
- Foru Aldundiek aurkeztutako gastu fiskalen aurrekontuen analisia.
- 2000ko urtealdian egindako gastu fiskalen balioespena eta aurkeztutako aurrekontuarekin alderaketa egin, urtealdi horrek hiru lurralde historikoetan oniritzitako Aurrekontua baitauka.
- Gastu fiskala eragiten duten arau fiskalen aldaketek xede dituzten helburuen kontrola eta jarraipena aztertu.

Gastu fiskalen aurrekontuak onura fiskalak ezartzearen ondorioz, zerga sarreraren murrizketaren aurreikuspena islatzen du; onura fiskal horiek izan daitezke salbuespenak, gastu murrizgarriak, murrizketak, hobariak edota ordainketa gerorapenak.

Foru Aldundien 2000ko urterako gastu fiskalen aurrekontua honako hau da:

Gastu Fiskalak		Mila €
Foru Aldundia	Aurrekontua	%
Araba	344.721	16,05
Bizkaia	1.052.150	48,99
Gipuzkoa	750.816	34,96
GUZTIRA	2.147.687	100,00

Eusko Jaurlaritzak Foru Aldundiek kalkulaturako gastu fiskalen totala soilik ematen du.



Honako txosten honek ondoko atal hauek besarkatzen ditu:

- Foru Aldundiei eta Zerga Koordinaziorako Organoari zuzendutako ondorio eta gomendioak.
- Legediaren egungo egoera.
- Gastu Fiskalaren definizioa eta kalkulu metodoak.
- Figura zergagarri nagusienetan gastu fiskalen analisia. Atal honetan HKEEk eskatuta, Foru Aldundiek egindako gastu fiskalaren balioespenak barne hartu dira.
- 2000ko urtealdian zehar oniritzitako neurri fiskalen kontrol eta jarraipena, dirubilketaren murrizketa eragiten dutenak.



I AZALPEN ATALAK

I1 ARAUKETA

Aurrekontuetan gastu fiskalei buruzko berri emateko betekizunak legezko jatorria du Konstituzioan, zeinak 134. artikuluan agintzen duen Estatuko Aurrekontu Orokorretan adieraziko dela Estatuko zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoa.

EAEn esparruan, irailaren 27ko 1/1994 Legegintzazko Dekretuaren 5. artikulua, Euskadiko aurrekontu araubideari buruz indarreko ebazpenen testu bateratua oniritzen duenak, agintzen du obligazioa dagoela EAEn Administrazioaren eta bere Erakunde Autonomoen zergak eragiten dituzten onura fiskalak aurrekontuetan adieraztekoa, Foru Aldundiek egiten dituzten ekarpenei dagozkien onura fiskalei buruzko informazioa emateaz gain.

Foru Aldundietako aurrekontu araubidea arautzen duten arauak aurrekontu orokorretan Gastu Fiskalen aurrekontua jasotzera behartzen dute eta honek berezko zergak eragiten dituen salbuespen eta hobariak jasoko ditu.

Lurralde Historikoa	Foru Araua	Artikuluak
Araba	53/1992, abenduaren 18koa	31 eta 32
Bizkaia	10/1997, urriaren 14koa	12
Gipuzkoa	17/1990, abenduaren 26koa	31 eta 32

Ogasuntzaren doktrinak berdindu egiten ditu gastu fiskalaren eta onura fiskalaren kontzeptuak eta subjektuaren arabera bereizten, administrazioarentzat gastu fiskala dena, zergapekoarentzat onura fiskala izateko moduan.

Aurrekontuaren arautegiak agintzen du sarrerak zenbateko osoarekin erregistratuko direla, hau da, dagozkion salbuespen eta hobariak ezarri ondoren daukagun zenbatekoarekin. Hau ezingo litzateke beste inola izan, ezinezkoa bailitzateke gastu fiskal gehienak aurrekontuan kontuetaratzea.

EAEn ezargarria den legeriak ez du betekizun gehiago ezartzen eta izatez, Foru Aldundiak eta Gobernuak dagozkion aurrekontu orokorrekin baterako memorieta kapitulu bat txertatu ohi dute, luze-laburragoa, eta gastu fiskaltzat hartutako hainbat kontusail kalkulatu. Estatuan informazioa zabalagoa da; Eranskin bat egin ohi dute eta bertan kalkulua egiteko prozedura azaldu eta gastu kontzeptu ezberdinak egiteko jakinei egozten zaizkie.

I 2 GASTU FISKALAREN DEFINIZIOA

1997an Zerga Koordinaziorako Organoak honela definitu zuen Gastu Fiskalen Aurrekontua: “tributu sarrerak murrizteko aurreikuspenaren kuantifikazioa, politika ekonomiko eta sozialeko hainbat helburu jakin eskuratzera zuzendutako mozkin fiskalak ezarri izanaren ondorioz”. Antzera definitzen dute kontzeptu hau GFDk eta BFDk euren aurrekontuetan. EAEn aurrekontu orokorrek mozkin fiskalekin berdintzen dituzte, hauexek baita 1/1994 LDK erabilitako hitza.

OCDEk gastu fiskalei definizio zabalagoa ematen die. “...Sistema Fiskalaren bitartez egindako estatuko gastuak, helburu ekonomiko eta sozialak eskuratzeko”.

Estatuak, 2002ko urtealdiaren aurrekontuen memorian, gastu fiskala definitzen du esanez zerga sistema espainiarra osatzen duten zergen kontzeptu eta parametroen multzoa dela, zergapekoei mozkin fiskalak ekartzen dizkiena eta honenbestez, dirubilketarako gaitasuna urritzen duena.

Jarduera publiko bat gastu fiskaltzat har daiteke:

- a) Zergaren oinarri estrukturalarekiko borondatez desbideratzen denean.
- b) Zergapeko edo entitateen multzo jakin bati, edo jarduera ekonomiko zehatz baten garapenera zuzendua dagoenean.
- c) Mozkin fiskala kentzeko sistema fiskala eraldatzeko aukera administratiboa dagoenean.
- d) Balizko mozkin fiskalaren kalte-ordainen bat sistema fiskaleko beste figuraren batean ez dagoenean.
- e) konbentzio tekniko, kontularitzako, administratiboan ondorio ez denean, edo nazioarteko hitzarmen fiskalei lotua.
- f) Obligazio fiskalen betetzea arindu edo erraztea helburutzat ez duenean.

Hona hemen gure ustez adierazgarrien diren lau kontzeptuak: Zergaren egiturarekiko desbideraketa; sarreren galera; helburu ekonomiko edo sozial batzuen jarraipena; eta sistema fiskala eraldatzeko gaitasuna.

Zergaren egiturarekiko desbideraketa

Gastu fiskalaren kontzeptuaren definizioaz adostasun handia badago ere, aldeak azaleratzen dira zerga jakin baten egituraz zer ulertzen den zehaztu nahi denean. Segun eta nola definitzen dugun egitura, gastu fiskalaren kontzeptuak ere ugariagoak edo urriagoak izango dira eta horren zenbatekoa ere aldatu egingo da. Horregatik azaldu dira hainbat ikuspegi, besteak beste, gutxien murrizten dutenen artean gailentzen direlarik Kanada, Estatu Batuak eta Alemania; izan ere, hauek erabiltzaileari ahalik eta informaziorik gehien ematen diote, kontzeptu jakin bat gastu fiskala den edo eztabaidatan sartu gabe. Horregatik, gastu fiskalen

txostenek barne hartzen dituzte bai hauek, bai zerga bakoitzaren egituraren bestelako zeinahi desbideraketa ere.

Foru ogasunen praktika izan da emandako informazioa mugatzea zergapekoek aurkeztutako likidazioekin zuzenean balioetsi daitekeenera, gastu fiskala direla onartu arren, informazio fiskal honekin kalkulatu ezin daitezkeen kontzeptuak baztertuz.

Sarrerren galera

Gastu fiskalak kalkulatzeko prozedura ohikoena sarrerren galera da. Simulazio tekniketan oinarritua, zergapekoz zergapeko gastu fiskal bakoitzaren eragina zehazten du. Segun eta zein den zergapekoen kopurua, laginketa teknikak edo talde osoa erabili ohi du.

Zenbaitetan, kalkuluak balioespen makroekonomikoak eta eraginpeko zergapekoen ezaugarrien suposamenduen aplikazioak hartu behar ditu oinarri.

Prozedura honi jarraiki kalkulaturako gastu fiskalen balioespenak interpretatzerakoan, ez dugu ahaztu behar:

- Gastu bakoitzaren kostua kalkulaten da suposatuz gainerako gastu fiskalak ez direla aldatzen eta honenbestez, gastuen baturak ez du erakusten administrazioak zein mozkin eskuratuko lukeen hori kenduz gero, izan ere, ez baitira kontutan hartzen batzuen eta besteen arteko elkarloturak. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergaren oinarri zergagarriaren dedukzioetan guztiek batean duten eragina kalkulaten dute, dedukzio bakoitzari dagokion proportzioan banatuz.
- Ez dira gogoan hartzen zergapekoen jokabidean zein aldaketa eragin ditzakeen politika fiskala ezabatu edo aldatze hutsak.

Balioespen eta kalkulu hauek guztiak kanpaina fiskalen gainean egiten dira eta horiek ez datoz bat kontularitzako erregistroekin, horien itxiera aurrekontu-urtealdia baino areago luzatzen delarik. Honenbestez, orokorrean ezinezkoa da dagokion aurrekontuaren likidazioan urtealdi jakin bati dagozkion gastu fiskalen behin-betiko kopuruak izatea; honek, ordea, ez du eragotzi behar kitaturako urtealdiaren balioespenak eta aurreko urtealdietako behin-betiko kopuruak barne hartzea, alderagarriak diren datu-serieak eskainiz.

Helburu ekonomiko eta sozialak

Gastu fiskal ororen ezaugarri erabakigarria izan ohi da izaera ekonomiko edo sozialeko helburu bat izatea, modu orokorrean Foru Aldundiek oniritzitako arautegi fiskalean aurreikusia dagoena. Honek, gainera, bestelako aurrekontu gastuekin bezalaxe, neurri bakoitzak eskuratu asmo dituen helburuei buruzko informazioa eskatuko luke, eta baita horren zenbatespenari buruzkoa ere.

Honi dagokionez, EAEn aurrekontu orokorrek gastu fiskalen aurrekontuari politika fiskalaren eta ekonomian artekaritza publikoaren analisirako baliabide modura erabiltzeko

balioa ematen diote; halaber, izaera sozial eta ekonomikodun hainbat helbururi arreta emateak (hezkuntza, etxebizitza, sanitatea, aurrezkia eta inbertsioaren sustapena, etab.) dakarren sakrifizio fiskalei buruzko informazioa ere ematen dute.

Ez EA Eren aurrekontu orokorrek, ezta lurralde historikoei dagozkienek ere, ez dute inongo informaziorik ematen gastu fiskaleko edota eraginpeko politika zein sektore ekonomikoko hainbat kontzepturekin eskuratu asmo diren helburu jakienei buruz. Honenbestez, komenigarria da obligazio hau berariaz txertatzea aurrekontuaren arautegian, izan ere, neurri fiskal ezberdinen analisisa erraztuko bailuke eta gastu fiskalen norakoaren ezagutza eta gardentasun handiagoa bultzatuko bailuke.

Sistema fiskala aldarazteko gaitasuna

Gure sistema fiskalean existitzen diren hainbat zergaren arautegia aldarazteko Foru Aldundiek duten gaitasuna oso txikia da, edo hutsekoa, nahiz zergen dirubilketa eta kudeaketa foru ogasunen esku dagoen (Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Zerga bereziak, egoiliarak ez diren Errentaren gaineko Zerga, etab.); honen aldean, ordea, beste zerga batzuk, hala nola, NUIZ, Sozietateen gaineko Zerga, Ondare edo Oinordetza eta Dohaintzenak, arautegi autonomoa dute eta honenbestez, Foru Aldundiek gaitasuna dute salbuespenak, hobariak eta bestelako mozkin fiskalak aitortzeko.

Arauk emateko gaitasun ezberdin honen ondorioz, gastu fiskal horiei buruzko interesa eta beharra ere bestelakoa da. Honenbestez, gure ustez, gastuen aurrekontuek alde hau azaleratu behar lukete eta ahaleginak aldaketagai diren haien gaineko kalkulu eta informazioa zehaztera zuzendu.

OCTren lantaldearen ondorioak

1997ko irailean OCTren baitan antolatutako lantalde batek hainbat urrats idatzi zituen gastu fiskalen aurrekontu bat hezurramitzeko; honela, bada, bi egiteko bereizi zituzten: zerga bakoitzean egiturazko jotzen denaren deskribapena, batetik, eta zein kontzeptu diren gastu fiskal eta zeintzuk ez, zehaztea, bestetik.

Lan honetan aztertutako zerga bakoitzaren ondorioak honako hauek izan ziren:

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga: gastuak kalkulatzeko irizpide orokortzat finkatzen du zergapeko kopuru jakin baten gaineko simulazioa. Berariaz bazterten dira kuota sindikalak, familia gastuak eta interes tipo bereziak ezarri edo bestelako zuzenketa baloratiboak egitea ondare hazkuntzetan; baita murrizketak ere dibidendu edo kooperatiba-itzulketengatik. Ordea, gastu fiskal dira Pentsio Planetarako ekarpenak, etxebizitzaren jabetza edo alokairuarekin lotutako murrizketak eta norberaren lanaren errendimenduak. Egoiliarak ez direnak salbuesteari dagokionez eta sari eta beken kontzeptuan, nahiz eta onartzen den gastu fiskala eragiten dutela, daturik ez izateak kalkulua eragozten du, hori balioesteko inolako aukerarik proposatu gabe.

- Ondarearen gaineko Zerga: gastu fiskaltzat hartzen da salbuetsitako gutxienekoa, NUIZarekiko kuota egokitzea, Ceuta eta Melillan ondasunak izateagatik hobariak eta enpresa ondasun eta eskubideen eta enpresen kapital sozialean partaidetza jakin batzuen salbuespenak. Halaber, beste salbuespen mota batean gastu fiskala dagoela onartzen da (zor publikoa egoiliarak ez direnen eskuetan, ondare historikoaren ondasunak), baina onartuz kalkulua eragozten duen ondasun hauen gaineko datu eza dagoela.
- Sozietateen gaineko zerga: Gastu fiskaltzat hartzen dira tipo bereziak ezartzetik eratorritakoak, kuotan egindako hobariak eta finantzaketa eta inbertsioari emandako suspergarriak. Nahiz eta hasiera batean gastu fiskala osatzen duten kontzeptuen deskribapen zabalagoa egiten den, gastu fiskala balio-neurtzkeo molde zehazteko unean hainbat kontzeptu ekiditen dira, esate baterako, berrinbertsioagatik salbuestea, amortizazio askatasuna edo zerga atzeratzeko bestelako zeinahi suposamendu.
- Balio Erantsiaren gaineko Zerga: kalkulatzeko metodologia modura Europako Batasunak erabilitakoa ezarri da, Estatu kideen ekarpenak zehazteko eta Jean Lefevrek diseinatutakoa.
- Dohaintza eta Ondorengotzen gaineko Zergak: Nahiz ez duen zehazten nola kalkulatu den, gastu fiskaltzat zer ulertzen duen adierazteko arau labur batzuk ematen ditu, eta soil-soilik baztertzen ditu nazioarteko inposaketa bikoitza eta NUIZek ordainarazitako ez-menpekotasuneko suposamenduak.
- Ondare Eskualdaketa eta Ekintza Juridiko eta Dokumentatuen gaineko zerga: horren kalkuluaren deskribapenik ere ez da existitzen, gastu fiskaltzat hartzen ez diren kontzeptuak zerrendaratzera mugatuz.

Agiri hau bere garaian urrats bat izan zen Foru Aldundien arteko gastu fiskalen informazioa berdintzeko, baina gaurkotzeko eta edukien garapena beharrezkoa ditu.



I3 GASTU FISKALEN EGITURAREN ANALISIA, ZERGEN ARABERA

Hona hemen 2000ko urtealdian zehar Foru Aldundien balioetsitako gastu fiskalak eta egiazko dirubilketa guztira:

	AFA		BFA		GFA	
	Gastu Fiskala	Dirubilketa	Gastu Fiskala	Dirubilketa	Gastu Fiskala	Dirubilketa
NUZ.....	146.537	408.194	555.004	1.288.721	353.717	843.514
Ondare Zerga	7.493	11.441	57.655	71.922	23.309	33.332
Sozietateen Zerga	76.254	160.551	165.016	465.798	134.672	278.888
BEZ.....	49.306	469.850	186.218	1.403.096	111.512	918.437
Zerga Bereziak eta Asegur. buruzk.....	20.631	182.769	88.590	591.490	57.638	377.640
Bestelako zergak (1).....	43.728	43.178	N/C	213.189	N/C	107.388
GUZTIRA	343.949	1.275.983	1.052.483	4.034.216	680.848	2.559.199

N/C:Kalkulatu gabeko datua

(1) Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergak, Ondare Eskualdaketena eta Ekintza Juridiko Dokumentatuena barne hartzen ditu.

Zerga ezberdinak aztertu aurretik beharrezkoa da azpimarratzea gastu fiskalaren %50 inguru NUIZek hartzen duela eta gastu fiskalen bolumenak aztertutako zergen multzoari dagokionez, gastu fiskalik izan ezean jasoko litzatekeenaren %21 inguru egiten du.

Gastu fiskala Foru Aldundiek balioetsi dute HKEEK hala eskatuta, gogoan harturik:

- NUIZen, Ondare Zergan eta Sozietateen Zergan 1999ko urtealdiari dagokion kanpaina fiskala, kuotaren murrizketak zuzenean finkatutako aitortzenetik eskuratuz; oinarriaren murrizketen eragina kalkulatzeko, berriz, eraginaren estimazioetara jo da, bai aurkeztutako aitortzen guztien (GFA) gaineko simulazio programak erabiliz, bai dagozkien tipo marjinalak aplikatu zaizkien zatikako aitortzen finkatuen bitartez.
- BEZen 2000ko urtealdiari dagokion kanpaina fiskalaren aitortzen finkatua eta Estatuko Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiak kalkulaturako batez besteko tipoa.
- Zerga Bereziak Estatuak 2000ko bere aurrekontuetan aplikaturako portzentaje berak.
- Gainerako zergetan tipo zergagarrien arabeko estatistikak, urtealdiaren dirubilketari dagokionak eta hobaritu gabeko tipoa ezarri zaienak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Gastu fiskalen kalkulua zehaztu eta berdintzeko lana gehien garatu duen zerga dugu hau. Lurren batetik bestera alda daitezkeen atalak badaude ere, dela politika jakin baten eragin handiagoagatik, dela kalkuluzko aldeagatik, nagusiki datu gehiago izatearen ondorio, edo baliabide informatiko aurreratuagoen ondorio, Foru Aldundiek aurkeztutako datuak alderagarriak dira:



Mila €

	AFA		BFA		GFA	
	Aurrekontua	Balioetsia	Aurrekontua	Balioetsia	Aurrekontua	Balioetsia
EPSVen ekarpenak eta Pentsio Planak	19.377	23.162	57.168	84.725	41.512	56.625
Lan errendimenduengatiko hobariak.....	78.005	60.747	251.866	222.236	159.388	156.588
Baterako tributazioa	37.131	29.341	135.588	122.138	87.766	66.219
Etxebizitza dedukzioagatik konpentsaz.....	-	-	12.411	23.998	-(1)	14.418
Ohiko etxebizitz. alokairuagatik dedukzio.....	974	1.853	2.729	2.903	2.434	3.324
Etxebizitza erosteagatik dedukzioa	24.353	23.250	82.513(2)	79.346	52.613	46.903
Etxebizitza kontuak.....	3.330	5.789	-	14.441	5.127	7.032
Enpresa Jarduerengatiko dedukzioak.....	1.310	1.292	2.296	2.230	1.010	1.142
Dohaintzengatiko dedukzioak.....	553	1.075	2.705	2.933	962	1.448
Enpresan langileen partaidetza.....	288	28	1.202	54	601	18
Inbertsio Kolektiboaren Inst. Tipoa (3).....	-	-	21.594	-	31.944	-
GUZTIRA	165.321	146.537	570.072	555.004	383.357	353.717

(1) Ez zen kalkulatu aurrekontua mamitzeko unean, izan ere, ohiko etxebizitza erosteko dedukzioaren aldaketagatik konpentsazioaren arauketa ez baitzen 1999 arte gertatu.

(2) Etxebizitza kontuagatik murrizketa barne hartzen du.

(3) Estatuak jarraitutako irizpidearen arabera, gastu fiskal modura hartu zen, %50ean NUIZ eta Sozietateen Zergaren artean banatuz 2000ko urteakdira arte; gerora, 2001eko urtealdian jarrera hau berriz aztertu zuten eta gastu fiskaletatik kendu; honenbestez, Foru Aldundiek likidazioan kalkulutik baztertu dute.

Gastu fiskalak zergaren kuota likidoaren %46 egiten du eta kontzeptu nagusienak honako hauek dira: lan errendimenduen hobaria, gastu guztien %42arekin; Pentsio Plan eta EPSVen ekarpenak, %16arekin; baterako tributazioagatik dedukzioa, %21arekin; eta etxebizitza erosketak, %17arekin.

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan, zenbait kontzeptutan, desbideraketak oso adierazgarriak dira, bai ehunekoetan, bai termino absolutuetan ere. Alde hauen arrazoiak azaltzen dute, bai aurrekontua egiteko erabilitako datuen jatorriak (1997ko kanpainari dagokion NUIZ), baita 1999an oniritzitako arautegiaren aldaketak ere, gastu hauek zuzen balioestea zaildu baitzuen. Honez gain, gastu fiskalen aurrekontuen jarraipen ezak zaildu egiten du gastu bakoitzean joerak auresatea.

Foru Aldundien arteko alde nagusienak bi ataletan daude: kalkulua egiteko moldean batetik, dagozkien baliabide informatikoen erabilgarritasunak edo ezak mugatua (kalkulu erroreak %10 artekoak izan daitezke) eta bestetik, 2000ko urtarrilaren 1a baino lehenago erositako ohiko etxebizitzaren konpentsazio aukera izenekoan, oinarria murriztetik eratorritako gastu fiskalak AFAn aintzat ez hartzean; gastu honek BFAn eta GFAn gastu fiskalen guztizkoaren %4 egiten du.

1997ko iraileko Zerga Koordinaziorako Organoaren ondorioak erreferentzia modura hartuta eta egindako legedia aldaketak gogoan izanik, gastu fiskal modura jaso gabeko kontzeptu bakarrak salbuetsitako zenbait errentari dagozkionak dira, hala nola, loteriako sariak, beka publikoak, literatur sariak, kaleratzeagatik kalte-ordainak edota "hildakoaren gainbalioa"

izenekoa. Aipatutako ondorio horien arabera, kalkulua ez da egiten balioespena bideratuko duten datu eza dela eta. Estatuak gastu horien kalkulua egiten du eta NUIZean gastu fiskalen aurrekontu osoaren %7an balioztatzen ditu, Foru Aldundien kasuan guztira 80 milioi € inguruko gastu totala egingo lukeena.

Badira beste neurri fiskal batzuk sarreren murrizketan zenbateko eragina duten kalkulatu gabe dutenak, zergaren egiturazko elementutzat hartzen direlako; horien artean aipatzekoak dira ondorengoan eta elbarrien kontzeptuko familia dedukzioak eta urtealdi batean baino gehiagotan ekoiztutako ondare irabaziek tipo finko batean egindako tributazioa. Gure iritzia da neurri hauek duten garrantziak eta horien arauketa eta zenbatekoen aldaketak inflazioaren eraginetara egokitze hutsa baino areago, dirubilketan duten eraginari buruzko behar hainbateko informazioa emateko beharra erakusten dutela.

Foru Aldundiek izan duten bilakaeraren analisisian azaleratu den beste alderdi bat da urtealdi ezberdinen arteko informazioa berdintzeko komenigarritasuna, arauzko aldaketak gertatzen direnean bereziki. Aurrezarritako egitura zergagarri batekiko gastu fiskalak kalkulatzeko aukera azter liteke, edo gutxienez, arautegi baten eta bestearen eraginak deskonposatzekoa.

Ondarearen gaineko Zerga

Aztertu ditugunetatik egitura xumeena duen zerga da, oinarria murrizteko kontzeptu gutxikoa, kuotaren dedukzio gutxi, zergapeko kopuru urria eta arautegia nolabaiteko egonkortasunekoa duena.

	Mila €					
	AFA		BFA		GFA	
	Aurrekontua	Balioetsia	Aurrekontua	Balioetsia	Aurrekontua	Balioetsia
Salbuetsitako gutxienezkoa	2.242	3.676	16.985	20.687	5.547	10.800
Beste salbuespen batzuk	-	-	6.641	6.641	-	-
NUIZ kuotaren egokitzapena.....	4.637	3.817	26.060	30.327	8.312	12.507
Ondasunen bonifikazioa Ceuta eta Melilla	-	-	-	-	54	2
GUZTIRA	6.879	7.493	49.686	57.655	13.913	23.309

Eskuratutako datuen arabera, Ondarearen Zergan gastu fiskalak bi kontzeptutan laburbiltzen dira, bien artean bildutako kuota likidoaren %70 gaintzen delarik. Nahiz eta itxura batean zerga sinplea den, aurrekontu egindako gastu zenbatekoen eta kanpainaren behin-betiko datuen arabera kalkulaturakoaren arteko aldeak oso esanguratsuak dira. Alde horien zergatiak dira, batetik, zerga honen bilketa aurreikusitakoaren gainetikoa izatea, batik bat Gipuzkoan, eta bestetik, kalkulua egiteko prozeduretan egindako aldaketak. Nolanahi ere, gastu fiskalen jarraipena egiteko beharra azaleratu da, aurrekontuak behin-betiko datuekin alderatuz.



Erreferentzia modura OCTren ondorioak hartuta, berriz ere ikusi dugu zergabilketan salbuetsitako izendatutako errenten ondorioak ez direla jaso. BFAk soilik ematen du salbuetsitako ondasunen kostuaren balioespena, baina behar hainbateko euskarririk gabe. Azken urtealdietan, ordea, ondarearen kontzeptu esanguratsuak salbuetsi aitortu dira, esate baterako, 2000ko urtean ohiko etxebizitza eta zuzendariek sozietateetan parte hartzea 1997tik aurrera, jada aurretik existitzen ziren beste batzuei gaineratu zaizkienak, EPSV eta pentsio planei dagokiena, edo egoiliar ez direnen eskuko balore higigarriak, neurri hauek guztiek eragin duten gastuaren berri batere eman gabe. Kontzeptu hauek, Estatuko Aurrekontu Orokorretan egindako kalkuluak abiaburu hartuta, Foru Aldundiek balioetsitako bi kontzeptuek baino bi aldiz gastu handiagoa eragin dezakete.

Sozietateen gaineko zerga

Gastu fiskalen bolumenari dagokionez bigarren zerga bada ere, eta NUIZen pareko bildutako sarreraren ehunekoarekin, ezargarri diren molde eta arautegi ezberdinek eragindako datuak berdintzeko beharrak, erabilgarri dauden baliabideei, egindako interpretazioei eta lurralde bakoitzeko egitura ekonomikoari lotuta, alde nabarmenak eragiten ditu.

Mila €

	AFA		BFA		GFA	
	Aurrekontua	Balioetsia	Aurrekontua	Balioetsia	Aurrekontua	Balioetsia
Tipo Zergagarriak.....	13.487	11.600	34.192	22.879	44.529	18.196
- Kooperatibak.....	N/D	2.429	N/D	6.851	N/D	17.904
- Soziet. eta Inb. Hig. Fondoak(1).....	N/D	5.514	N/D	6.020	N/D	292
- Pentsio Fondoak eta EPSV.....	N/D	2.622	-	-	-	-
- Enpresa txikiak.....	-	-	N/D	3.213	-	-
- Bestelako tipoak.....	N/D	1.035	N/D	6.795	-	-
Kontularitzaz kanpoko zuzenketak.....	4.604	5.939	38.717	19.088	6.113	8.335
- Lasterreko amortizazioa.....	4.135(2)	5.476(2)	28.344	10.715	1.905	3.029
- Berrinbertsioagatiko salbuespena.....	N/D	N/D	N/D	5.226	1.521	2.833
- Berrinbertsioagatiko gerorapena.....	469	463	10.373(2)	3.147	1.485	2.473
- Kaudimengabeziatarak. zuzkidura globala.....	-	-	-	-	1.202	-(3)
Sortze berriko enpresak.....	1.695	4.898	-	9.700	1.328	1.027
Hobariak.....	4.904	2.524	10.251	7.181	12.820	14.298
- Babestutako kooperatibak.....	N/D	N/D	N/D	4.626	N/D	11.816
- Beste batzuk.....	N/D	N/D	N/D	2.555	N/D	2.482
Mugadun dedukzioak.....	31.277	38.762	98.193(4)	74.296	80.584	68.992
- Mat. berrien aktibo finkoak.....	27.124	26.194	N/D	N/D	74.225	66.958
- Kultur intereseko ondasunetan inbertsioa.....	N/D	78	N/D	N/D	-	-
- Inbertsio Emankorreko Ereterberba.....	1.689	1.619	N/D	N/D	5.992	2.015
- I+Gko jarduerak.....	2.440(5)	3.293	N/D	N/D	-	-
- Ingurumeneko inbertsioak.....	24	28	N/D	N/D	367	19
- Esportazio jarduerak.....	N/D	2.523	N/D	N/D	-	-
- AIE sorrera.....	N/D	361	N/D	N/D	-	-
- Enplegua sustatzeko Sozietateen ekarpena.....	N/D	4.357	N/D	N/D	-	-
- Nekazaritza neurriak.....	N/D	309	N/D	N/D	-	-
Mugarik gabeko dedukzioak.....	10.217	12.531	N/D(4)	31.872	14.719	23.824
- Enplegu sorrera.....	9.352	11.485	N/D	N/D	13.216	19.261
- Errenta aldakorreko baloreen erosketa.....	865	1.046	N/D	N/D	1.503	4.563
Bestelako kontzeptuak.....	-	-	8.480	-(3)	4.658	-(3)
- 8/88 Kreditu fiskala.....	-	-	8.480	-	-	-
- Zuzendaritza, Koordinazio Zentroak.....	-	-	-	-	601	-
- Itsas-Arrantzuko araubidea.....	-	-	-	-	451	-
- Gastu Fiskalak, Arautegi Komuna.....	-	-	-	-	3.606	-
GUZTIRA	66.184	76.254	189.833	165.016	164.751	134.672

N/D: Xehekatu gabeko datua

- (1) Bai BFAk, bai GFAk ez dute likidazioan Inbertsio Higigariko Fondoak tipo murizturako tributaziotik eratorritako gastuaren %50a barne hartzen.
- (2) Berrinbertsioagatiko salbuespena ere barne hartzen du.
- (3) Behin-betiko gastua kalkulatu gabe, datu ezagatik.
- (4) Ez daukagu datu xehekatua.
- (5) Kontzeptu honetan beste dedukzio batzuk bezala aurrekontu egindako zenbateko osoa barne hartu dugu, ez baitaukagu horren datu xehekaturik.

Sozietateen gaineko Zergari dagokion gastu fiskalaren atal handiena dedukzioetan pilatzen da, batik bat, aktibo finko berrietan egindako inbertsioetatik eratorritakoak eta enplegu

sorreragatik, izan ere, segun eta zein den diputazioa, zergarentzat kalkulaturako gastu fiskal osoaren %50 gainditu baitezake. Ondoko kontzeptua, ordea, dagokion lurralde historikoaren egitura ekonomikoaren baitako ez ezik, erabilitako kalkulu prozeduraren baitako ere bada.

Zerga honetan kalkuluaren prozedura ikuspuntutik bereziki aipatzekoa da Foru Aldundien arteko aniztasuna, bai barne hartzen diren kontzeptuei dagokienez, bai horiek neurtzeko erabilitako baliabideei dagokienez ere. Hona hemen alde adierazgarriak:

- AFak eta GFak ez dute kalkulatu enpresa txikien lehenengo 10 milioi pezetak %30era egindako tributazioaren eragina; BFAk, ordea, bai.
- BFAk ez zuen aurrekontuan balioetsi enpresa berri jakin batzuei ezargarriak zitzaizkien salbuespenetik eratorritako gastu fiskala. Beste kasu batzuetan emandako xehetasunak dezente mugatuak dira, AFaren eta GFaren kasuan bezala.
- Hainbat kalkulutan erabilitako prozedurak guztiz bestelakoak izan ohi dira; honela, bada, kontularitzaz kanpoko zuzenketak eta dedukzioak aldundi bakoitzak modu batean kalkulatu ditu. Alde hauen ondorioz, BFAk GFaren irizpideak erabiliko balitu amortizazio askatasunagatik zuzenketaren eragina eta amortizazio bizkorragotuen eragina ezagutzeko, gastu fiskala 6.615 mila € tan murriztuko litzateke.
- AFak gastu izaera ematen die urtealdian sortutako dedukzio guztiei; BFAk, berriz aplikatu diren haiei soilik, eta GFak urtealdian sortu direnetatik %80ari.

Foru Aldundiek jaso gabeko kontzeptuei dagokienez, azpimarratzekoa da aktibo finko berrietan inbertitzeagatik %45eko Kreditu Fiskalari dagokiona, Gastu honek, zuzenean aitorten finkotik eskuratutakoak, BFAk eta GFAn kalkulaturako gastu fiskal osoaren %10 baino zertxobait gehiago egiten du eta AFaren kasuan %50, hiru Foru Aldundien artean gastu fiskaleko 60 milioi € baino gehiago eginez. Halaber, ez dira beste zenbait kontzeptu ere jaso, hala nola, kooperatiben erretserba fondoari egindako zuzkidurengatik kontularitzaz kanpoko zuzenketak, edo kontularitzaren emaitzari egindako beste zuzenketa batzuen finantza eragina.

Behar-beharrezkoa dugu Foru Aldundien arteko armonizazio estuagoa eta Sozietateen gaineko Zergan gastu fiskalaren kontzeptu eta kalkulu metodoen garapen handiagoa.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Zerga Bereziak

Gastu fiskalaren kalkulua BEZen egiteko oinarritzat hartzen da Estatuko Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiak balioetsitako batez besteko tipoa, Europako Batasunari egin beharreko ekarpena zehazteko oinarri bateragarria kalkulatu ahal izateko. Batzar Nagusiek arauzko aldaketak egiteko duten gaitasuna guztiz mugatua dagoenez gero, honen kalkulua informatiboa baizik ez da, ez baitu foru administrazioak hartutako inolako neurririk barne hartzen.

Zerga Berezietan hori balio-neurtzeko arazoak dauden salbuespenekiko daturik ez izatetik datoz; honenbestez, kalkulua egiteko dirubilketa garbiari Estatuak bere Gastu Fiskalen Aurrekontuan balioesten duen gastu fiskalen ehuneko bera aplikatzen zaio. Nolanahi ere, BEZ bezalaxe, ez dira erkidegoko arautegikoak eta honenbestez, Foru Aldundiek ez dute sistema fiskala eraldatzeko gaitasunik.

	Mila €					
		DFA		DFB		DFG
	Aurrekontua	Balioetsia	Aurrekontua	Balioetsia	Aurrekontua	Balioetsia
Balio Erantsiaren gaineko Zerga.....	54.422	49.306	151.798	186.218	101.001	111.512
- Tipoa %4	N/D	10.314	39.583	44.844	N/D	23.814
- Tipoa %7	N/D	38.992	112.215	141.374	N/D	87.698
Zerga bereziak	19.356	19.211	84.646	82.870	55.335	53.991
- Hidrokarburoak	10.616	10.415	58.436	58.750	38.170	37.458
- Alkohola eta eratomitako edariak	624	684	2.530	2.730	1.593	1.739
- Tabakolanak	628	823	1.539	2.010	974	1.279
- Argindarra	430	399	-	-	877	819
- Zenbait garraiobide	7.058	6.890	22.141	19.380	13.721	12.696
* Tasa muriztua	N/D	4.347	N/D	N/D	N/D	N/D
* Tasa hutsa	N/D	1.282	N/D	N/D	N/D	N/D
* PREVER Plana	N/D	1.261	N/D	N/D	N/D	N/D
Aseguru Sarien gaineko Zerga.....	1.435	1.420	6.112	5.720	3.822	3.647

N/D: Xehekatu gabeko datua

Aparteko aipamena merezi du Matrikulazio Zergak, non arautegiaren gaineko gaitasuna mugatua egon datekeen arren, behar hainbateko informazioa dagoen Foru Aldundietan; honela, bada, AFAk hiru kontzeptu bereizten ditu, Prever Plana aplikatzeari dagokiona; zilindrada txikiagoko ibilgailuei aplikatutako tasa murriztua eta kolektibo jakin batzuei aplikatutako salbuespena.

Bestelako Zergak

Gainerako zergetan egindako aurreikuspenak eskasak dira, edota euskarri eskas samarra dutenak; eta hala erakusten du gerora horien eragin egiazkoa kalkulatu ezin izateak datu eza dela eta; AFA da gastu fiskalaren beharrezko kalkuluak egitea bideratzen dion informazio sistema duen bakarra, xehetasun handiz gainera, Ondorengotza eta Dohaintzetan, Dokumentaturiko Ekintza Juridikoetan eta Ondare Eskualdaketetan.

	Mila €					
	AFA		BFA		GFA	
	Aurrekontua	Balioetsia	Aurrekontua	Balioetsia	Aurrekontua	Balioetsia
Ondorengotzen Zerga.....	6.308	19.949	-	-	5.956	-
IIP eta AJD.....	24.819	23.779	-	-	22.676	-

Nahiz zerga hauek NUIZ edo Sozietateen Zergarenak baino kopuru dezente txikiagoak izan ohi diren, arauketarako gaitasuna duten zergak dira. AFAk kalkulaturako gastu fiskalak 43 milioi €ak gainditzen ditu eta honenbestez, beste bi lurralde historikoetarako 300 milioi € inguruan balioets daiteke, horren jarraipena ahalegin handiagoaz egiteko adinako zenbatekoa dena.

14 ARAUTEGIALDAKETAK

Hiru lurralde historikoetako Zergaren Foru Arau Orokorrei jarraiki, mozkin fiskalak jasotzen dituen arau oro memoria batez lagundu beharko da, horren helburua eta dirubilketaren gaineko eraginak jasoko dituen.

2000ko urtealdian zehar onartutako neurri nagusietatik hiru hautatu ditugu, Foru aldundien gastu fiskaletan igoaldia ekarri dutenak:

- Sozietateen Zergan ikerketa, garapen eta berrikuntzagaratiko dedukzioak gehitzea.
- Tributaziotik salbuestea Ondarearen Zergan, ohiko etxebizitzarenean, Araban eta Gipuzkoan 150 mila €ko gehieneko mugarekin, eta 180 mila €koa Bizkaian.
- NUIZEN Pentsio Planetarako eta EPSVrako ekarpenengatik emandako hobarien tratamenduan hobekuntza.

BFA salbuetsita, gainerako foru aldundiek Pentsio Plan eta EPSVei buruzko neurriari dagokionez ez digute eman hasiera batean aurreikusitako ondorioen zenbatespena eta inola ere ez neurri horiekin eskuratu asmo diren helburuena. Honen aldean, ordea, neurri hauek eragin duten dirubilketa galeraren ondorengo ebaluaketa egin dute.

Ondoko taulan aipaturako mozkin fiskalak oniritzetik eratorritako dirubilketa galerak erakutsiko ditugu:

Neuriaren deskribapena	AFA	BFA	GFA	Mila € GUZTIRA
Sozietateen gaineko zerga:				
Ikerketa eta Garapen jardueretan dedukzioen igoera.....	-	1.102	889	1.991
Ondarearen gaineko zerga:				
Ohiko etxebizitzaren salbuespena muga jakin batera arte.....	575	3.600	1.856	6.031
Norbanakoaren Urteko Irabazien gaineko Zerga:				
Pentsio Plan eta EPSVko ekarpenengatik dedukzioaren igoera	1.208	2.416	2.366	5.990

Sozietateen Zergan gastuaren kalkuluak gogoan hartzen ditu soilik berrikuntza teknologikoko ekintzen gaineko dedukzio berrien eragina eta %10eko dedukzio osagarria langile ikertzaileen eta zentro teknologikoekin kontratatutako proiektuen gastuengatik. Izaera kualitatiboa duten beste aldaketa batzuk (esate baterako, softwarea garatzeko hainbat proiektu barne hartzea) ez dira balioneurtu.

II ONDORIOAK

Gure lana egin ondoren eskuratu ditugun ondorio nagusiak segidako ataletan laburbilduko ditugu:

1. Foru Aldundiek ez dute balio neurtzen eta ez dituzte ezartzen oniritzi aurretik hobari fiskalekin eskuratu asmo dituzten helburuak, nahiz eta informazio hori derrigorrez emango den zerga salbuespen zein hobariak oniritzen dituzten arau proiektu guztietan, dagozkion zerga arau orokorre jarraiki.
2. Foru Aldundiek ez dute inolako prozedurarik oniritzi gastu fiskalak zehaztu eta kalkulatzeko. 1997ko irailean Zerga Koordinaziorako Organoan osatutako lantalde baten ondorioak aplikatzen dituzte, oraindik gaurkotu gabe daudenak nahiz eta izugarritzko arau aldaketa sakonak egin diren, batik bat NUIZen.
3. Gastu fiskalen aurrekontua hobari fiskal bakoitzak sortzen duen sarreraren galera kalkulatzera mugatzen da, neurri horiei helburuak izendatu gabe, ezta gastu politika edo gastu egitekoen arabera multzokatu gabe.
4. Foru Aldundiek argitaratzen duten Gastu fiskalei buruzko informazioa dagokion aurrekontuan sartzeko egindako aurreikuspenei dagokie soil soilik. Honek berariaz aurrekontu erregimenerako foru arauak agintzen dutena berariaz betetzeko bide ematen badu ere, ez du adierazten ezarritako neurri fiskalek Foru Aldundien sarreretan duten egiazko kostua zein den. Honela, bada, 2000ko urtealdirako mamitutako aurrekontuaren eta euskarritutako gastu fiskalen arteko aldeak, egindako balioespenen arabera, nabarmenak izan dira zenbait kontzeptutan.
5. Foru Aldundiek egindako aurreikuspenek nahiz eta kontzeptu eta zerga garrantzitsuenak gogoan hartzen dituzten, ez dituzte barne hartzen kopuru handiko gastu fiskala sortzen duten guztiak. Honela, ez dira barne hartzen NUIZen edo Ondarearen Zergan salbuetsiak dauden errenta edo ondarengatik gastu fiskalak, EAE osoan 80 milioi €ak gaindi ditzakeena. Halaber, ez dira barne hartzen Ondorengotza eta Dohaintzen Zergari dagozkion gastu fiskalak, Ondare Eskualdaketen Zergari edo Dokumentaturiko Ekintza Juridikoei dagozkionak Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundietan, 300 milioi € inguruko zenbatekoa egin lezaketenak.
6. Foru Aldundiek mamitutako gastu fiskalen aurrekontuak ez dira homogeneousak eta honek eragotzi egiten du konparaketa xehekatua eta aldean azalpena ematea. Alde hauek adierazgarriak dira Sozietateen Zergan, bai barne hartzen dituen kontzeptuengatik, baita kalkulurako erabilitako prozeduragatik ere.
7. 2000ko urtealdiko gastu fiskalen aurrekontuak ezezik, dagozkion zerga kanpainak amaitu ondoren egindako kalkulua ere aztertu direlarik, honako ondorio hauek atera daitezke horien egitura eta osaerari dagokionez:

- Foru Aldundiek balioetsitako gastu fiskalen zenbateko osoa 2.077 milioi €koa da eta horietatik %68 baino gehiago Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergan erregistratzen dira (NUIZ) eta Sozietateen gaineko Zergan (SZ); ehuneko hori %80tik gora igotzen da baldin eta gogoan hartzen baditugu Foru Aldundiek arautegi gaitasuna duten zergak soilik gogoan hartzen baditugu.
- NUIZ, SZ eta Ondare Zergaren gastu fiskalaren %78,5 neurri fiskaletan biltzen da:
 - Lan errendimenduengatikoa hobaria
 - Tributazio bateratua.
 - Pentsio plan eta borondatezko gizarte aurrezaintzarako entitateei ekarpenak.
 - Etxebizitza erosteagatikoa dedukzioa.
 - Aktibo finko material berrietan inbertitzeagatikoa dedukzioa.
- Aipatutako hiru zergei dagozkien gastu fiskalak politika publikoen multzo handien arabera sailkatuz gero, gastuaren %46 eta %51 bitarteko gastua aberastasuna birbanatu eta inbertsioak sustatzeko politiketan biltzen da.

III GOMENDIOAK

Azaldu ditugun ondorioen arabera, honako gomendio hauek egingo ditugu:

1. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek euren aurrekontuetan aurreikusitako gastu fiskalen berri emateko derrigortasunak eta egungo informazio ezeko eta homogeneotasun ezeko egoerak zera eskatzen du:

Foru Aldundiek eta Zerga Koordinaziorako Organoak hainbat ekintza gauza ditzatela informazio eskasia eta homogeneotasun eza zuzentzeko, hala nola:

- Informatu behar diren gastu fiskalen definizioa.
- Gastu fiskal bakoitza kalkulatzeko metodoak ezartzea.
- Gastu fiskalen berri emango duten agiriak.
- Informazio hau eskuratu eta jarraipena egiteko beharrezko diren giza eta teknika baliabideez hornitzea.

2. Nahiz gastu fiskalak ez diren banaka erregistratzen, eta ez diren mugagarriak, administrazioarentzat egiazko dira.

Gure iritziz, arautegiak aurreikusia duen gastu fiskalen aurrekontua mamitzeko eskakizuna ez da modu murrizgarrian interpretatu behar, izan ere, aurrekontu bat aurkezteak edozein modutara alderaketa egitea eskatzen baitu balioetsitako exekuzioarekin; baita, sortutako desbideraketei buruzko beharrezko azalpenak ematea ere.

3. Foru Aldundietako batek ere ez du inongo informaziorik ematen gastu fiskal ezberdinen bitartez eskuratu asmo diren helburuei buruz.

Komenigarria irizten diogu emandako informazioan, gutxienez, gastu fiskalak gastu politika ezberdinen edo agindutako egitekoen arabera metatzeko obligazioa izatea, honek neurri fiskalen analisia arinduko bailuke.

4. Halaber, komenigarria irizten diogu:

Gastu fiskalaren kontzeptua modu zabalean interpretatzea, informatu behar diren neurri fiskalak ez mugatzeko moduan.

Arautzeko gaitasuna duten zergak gainerakoetatik bereiztea.

INTRODUCCIÓN

Este informe referido al análisis de la estructura y composición del gasto fiscal, así como a los procedimientos de control de las diferentes Administraciones Públicas del País Vasco se realiza conforme a la Ley 1/1988 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas / Herri-Kontuen Euskal Epaitegia, y está incluido en el Programa Anual de Trabajo para junio 2002 - mayo 2003, a petición de la Comisión de Economía y Hacienda del Parlamento Vasco.

El trabajo ha consistido en:

- El análisis del concepto de gasto fiscal.
- El análisis de los presupuestos de gastos fiscales presentados por las Diputaciones Forales (en adelante DD.FF.).
- La obtención de una estimación de los gastos fiscales realizados durante el ejercicio 2000 y su comparación con el presupuesto presentado al contar dicho ejercicio con el Presupuesto aprobado en los tres territorios históricos.
- Analizar el control y seguimiento de los objetivos perseguidos por las modificaciones de las normas fiscales que generan gasto fiscal.

El presupuesto de gastos fiscales refleja la previsión de la reducción de los ingresos tributarios como consecuencia de la aplicación de beneficios fiscales que pueden adoptar la forma de exenciones, gastos deducibles, reducciones, bonificaciones o diferimientos en el pago.

El presupuesto de gastos fiscales de las DD.FF. para el año 2000 es el siguiente:

Gastos Fiscales	Miles de €	
	Presupuesto	%
Diputación Foral		
Álava.....	344.721	16,05
Bizkaia.....	1.052.150	48,99
Gipuzkoa.....	750.816	34,96
TOTAL	2.147.687	100,00

El Gobierno Vasco informa únicamente del total de los gastos fiscales calculados por las DD.FF.

El presente informe se ha estructurado en los siguientes apartados:

- Conclusiones y recomendaciones destinadas a las DD.FF. y al Órgano de Coordinación Tributaria.
- Situación actual de la legislación.
- Definición de Gasto Fiscal y métodos de cálculo.
- Análisis de los gastos fiscales en las principales figuras impositivas. En este apartado se incluyen las estimaciones del gasto fiscal incurrido realizadas por las DD.FF. a petición del TVCP.
- Control y seguimiento de las medidas fiscales aprobadas durante el ejercicio 2000 y que implican una disminución de la recaudación.

I APARTADOS EXPLICATIVOS

I1 REGULACIÓN

El requisito de informar en los presupuestos sobre los gastos fiscales tiene su origen legal en la Constitución que en su artículo 134 establece que en los Presupuestos Generales del Estado se consignará el importe de los beneficios fiscales que afecten a los tributos del Estado.

En el ámbito de la CAE el artículo 5 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones vigentes sobre régimen presupuestario de Euskadi, establece la obligación de consignar en los presupuestos los beneficios fiscales que afecten a los tributos de la Administración de la CAE y de sus Organismos Autónomos, además de informar sobre los beneficios fiscales correspondientes a las aportaciones que efectúen las DD.FF.

Las normas reguladoras del régimen presupuestario de las DD.FF. obligan a recoger en los presupuestos generales el presupuesto de Gastos Fiscales, el cual incluirá las exenciones y bonificaciones que afecten a los tributos propios.

Territorio Histórico	Norma Foral	Artículo
Álava.....	53/1992, de 18 de diciembre	31 y 32
Bizkaia	10/1997, de 14 de octubre	12
Gipuzkoa	17/1990, de 26 de diciembre	31 y 32

La doctrina hacendística equipara los conceptos gasto fiscal y beneficio fiscal distinguiéndolos en función del sujeto, de tal forma que todo gasto fiscal para la administración es un beneficio fiscal para el contribuyente.

La normativa presupuestaria señala que los ingresos se registrarán por su importe íntegro, entendiendo por éste el que resulta después de aplicar las exenciones y bonificaciones correspondientes. Esto no podía ser de otra forma dado que no resultaría posible contabilizar presupuestariamente la mayoría de estos gastos fiscales.

La legislación aplicable en la CAE no establece más requisitos, limitándose de hecho las DD.FF. y el Gobierno a incluir en las memorias que acompañan a los presupuestos generales correspondientes un capítulo, más o menos extenso, calculando algunas de las partidas consideradas gastos fiscales. En el Estado la información es algo más amplia elaborándose un Anexo en el que se describe el procedimiento de cálculo y se asignan los distintos conceptos de gastos a funciones concretas.

I 2 DEFINICIÓN DE GASTO FISCAL

En 1997 el Órgano de Coordinación Tributaria definió el Presupuesto de Gastos Fiscales como la "cuantificación de previsión de la reducción de los ingresos tributarios como consecuencia de la aplicación de los beneficios fiscales orientados a la consecución de determinados objetivos de política económica y social". De manera similar definen este concepto la DFG y la DFB en sus presupuestos. Los presupuestos generales de la CAE los equiparan con los beneficios fiscales, dado que es éste el termino utilizado por el DL 1/1994.

La OCDE define los gastos fiscales de una forma más amplia: "...gastos estatales hechos a través del Sistema Fiscal para conseguir objetivos económicos y sociales".

El Estado, en la memoria de presupuestos del ejercicio 2002, define el gasto fiscal como el conjunto de conceptos y parámetros de los impuestos que configuran el sistema tributario español que originan beneficios fiscales para los contribuyentes y por tanto, merman la capacidad recaudatoria.

Una actuación pública puede ser considerada gasto fiscal cuando:

- a) Se desvíe de forma intencionada respecto a la base estructural del impuesto.
- b) Esté dirigido a un determinado colectivo de contribuyentes, de entidades, o al desarrollo de una actividad económica concreta.
- c) Exista la posibilidad administrativa de alterar el sistema fiscal para eliminar el beneficio fiscal.
- d) No se presente alguna compensación del eventual beneficio fiscal en otra figura del sistema fiscal.
- e) No se deba a convenciones técnicas, contables, administrativas o ligadas a convenios fiscales internacionales.
- f) No tenga como propósito la simplificación o la facilitación del cumplimiento de las obligaciones fiscales.

En nuestra opinión los cuatro conceptos más significativos son: desviación respecto de la estructura del impuesto, pérdida de ingresos, seguimiento de unos objetivos económicos o sociales y capacidad de alterar el sistema fiscal.

Desviación respecto de la estructura del impuesto

Si bien existe un gran consenso en cuanto a la definición del concepto de gasto fiscal, las diferencias aparecen cuando se trata de determinar qué se entiende por la estructura de un determinado impuesto. Según como definamos su estructura surgirán más o menos conceptos de gasto fiscal y su importe también variará. Es por ello que han aparecido distintos enfoques, entre los que destacan como los menos restrictivos los de Canadá, Estados Unidos y Alemania, que facilitan al usuario la mayor información posible, sin entrar en controversias sobre si determinado concepto es o no gasto fiscal. Por ello, los informes de

gastos fiscales incluyen tanto éstos como cualquier otra desviación de la estructura de cada impuesto.

La práctica de las haciendas forales ha sido limitar la información suministrada a aquélla que es posible estimar directamente con las liquidaciones presentadas por los contribuyentes, eliminando conceptos que aunque se admite son gasto fiscal, no se pueden calcular con esta información fiscal.

Pérdida de ingresos

El procedimiento más común para calcular los gastos fiscales es el de la pérdida de ingresos. Basado en técnicas de simulación, determina contribuyente a contribuyente el impacto de cada gasto fiscal. Según cual sea el número de contribuyentes, utiliza técnicas de muestreo o todo el colectivo.

En algunos casos, el cálculo se debe basar en estimaciones macroeconómicas y en la aplicación de supuestos sobre las características de los contribuyentes afectados.

Al interpretar las estimaciones de gastos fiscales calculadas según este procedimiento, no se debe olvidar que:

- El coste de cada gasto se calcula suponiendo que no varían el resto de los gastos fiscales, por lo cual la suma de los gastos no refleja el beneficio que obtendría la administración con su supresión, dado que no se consideran las interrelaciones existentes entre unos y otros. La Diputación Foral de Gipuzkoa y la Diputación Foral de Bizkaia calculan, en las deducciones de la base imponible del Impuesto de la Renta de las Personas Físicas, el efecto conjunto de todas ellas repartiéndolo en proporción a cada deducción.
- No se consideran las modificaciones que en el comportamiento de los contribuyentes puede originar la supresión o simple modificación de una política fiscal.

Todas estas estimaciones y cálculos son efectuados sobre campañas fiscales, las cuales no coinciden con los registros contables y cuyo cierre se extiende más allá del ejercicio presupuestario. Por tanto, en general no es posible disponer de las cifras definitivas de los gastos fiscales correspondientes a un determinado ejercicio en la liquidación presupuestaria correspondiente, lo cual no debe impedir incluir estimaciones del ejercicio liquidado y las cifras definitivas de ejercicios anteriores ofreciendo series de datos comparables.

Objetivos económicos y sociales

Una característica determinante de todo gasto fiscal es la persecución de un objetivo de carácter económico o social que de una manera genérica se contempla en la normativa fiscal aprobada por las DD.FF. Esto requeriría además, al igual que con el resto de los gastos presupuestarios, información sobre los objetivos concretos que cada medida pretende conseguir e incluso de su cuantificación.

